

gure teatroa ifiongoa baiño ohea izan daiten, gure euskal-kantak poza ekarri deiguen biotzetara. Eta seguru egon gure nortasunean geroago ta sendoagoak izango gareala. Olan izan daitela opa deutsuet.)

MISIOAK EUSKERAZ BILBON

Aurtengo misioak Aita Aguirreche eta Aita Anasagasti frantziskotarrak predikatu dituzte San Juanetako eleizan, martiko 2-an asi eta 8-rarte. Jesusen Biotz Sakratuaren eleizan Aita Iñazio Goicoechea jesuitak egin zituen nekameenak aste berean. Jente asko batu zan.

Indautxuko jesuiten eleizen leendabiziko ostiraletako komunioa egiten jarraitzen da illero, meza bitartean euskerazko sermoi ta guzti.

AITA OLABIDE ZANAREN GORAZARREA GAZTEIZEN

Martiko amabostean Euskaltzaindiak Gazteizeko Ayuntamentuaren eta Arabako Diputazio Foralaren laguntasuna izanik Aita Raimundo Olabide zanari gorazarre aundi bat egin dio Arabako erri nagusian. Olabide Gazteizen jaio zan gorazarrea egin zitzaion egun berean, eta nola San Pedro Elizan bataiatua izan zan, meza nagusi bat egin zan bertan bere izenean. Gazteizeko koru batek parte artu zuen. Gero, amaika ta erdietan Teatro Printzipalean izango zan bere gorazarre-jaia. Teatro inguruan dotoretasunezko kutsu bat nabaritzen zan eta Euskalerriko toki guztietatik joandako jentea ikusten zan. Toki nabarmenean jarri ziran Euskaltzaindiko buruzagia, euskaltzain batzuek, Vera Fajardo jauna Ayuntamentuaren izenean, Jose Maria Urquijo jauna Diputazioarenean, eta Ormazabal jauna Apezpikuarenean.

Teloia zabaldu zanean Aita Aingeru Goenaga eta Vera Fajardo jauna agertu ziran. Beren atzean Euskaltzaindiaren ezkutua zegoan eta aren aldamentan Gazteizekoa eta Arabakoa, mazeru bi agertzen ziralarik inguruetan zaintzen bezala. Vera Fajardo jaunak esan zituen leendabiziko itzak Gazteiz erriaren izenean. Esan zuen nola Gazteizek ohore aundia artzen duen Aita Olabide bezalako seme bat izanik, eta nola aren nortasun nagusia Kristoren dotriña euskeraz zabaltzen agertu zan. Urrengo Aita Goenaga mintzatu zan, bere makalaldiagatik Aita Manzisidor-en utsunea betetzen zuela. Jesusen Konpafiaren izenean itz egin zuen eta bere itzaldia argitaratua izan da amabi orrialdeko liburutxo batean. Eta itzaldien ostean jaialdia asi zan. Leendabizi Txirinbil Gazteizeko Ayuntamentuko taldekoak dantzan ekin zuten. Gero Ondarrutarrek «Jaunaren bidetan», amar ataleko agerkizuna: I. Erramu artean. II. Jerusalem. III. Azken afaria. IV. Getsemani. V. Judas. VI. Pilatosen etxean. VII. Jerusalemgo alabak. VIII. Kurutzean. IX. Bakartadean. X. Aleluia. Ia eun ondarrutarrek parte artzen dute Agustin Zubicaray-ren obra eder onetan, eta an zeudenak arrituta gelditu ziran, ikusirik nola zentzun eta sentimentu osoa jartzen duten pasioko obra erdiragarrian. Bai korua, bai personajeak eta